

Abanto Zierbenan, 2021ko maiatzaren 31an

En Abanto Zierbena la 31 de mayo de 2021

### BILDU DIRA

Alde batetik, **Maite Etxebarria Azpiolea** andrea, **Abanto Zierbenako Udalaren izenean** eta bertako ordezkari gisa, indarrean den araudiak ematen dizkion eskumenak baliatuta,

Eta beste alde batetik, **AMPA Buenos Aires IGEko** erakundearen ordezkari bat. Erakundearen IFK: G-48234967; helbidea: Abanto Zierbena (Bizkaia) Cotarro Auzoa, 11zk., PK: 48500.

### ADIERAZI DUTE

Hitzarmen honen bidez, onuradunaren alde bideratuko direla erakunde honen indarreko aurrekontuan jasota dauden diru-laguntzak. Zehazki, 4. kapituluan (transferentzia arruntak) esleitutako kredituaren barruan daude, «**AMPA Buenos Aires IGE** erakundearen alde» izenpean. Esleipenaren zenbatekoa 5.128,95eurokoa da. Orobat, hitzarmen honen bitartez ezarriko dira onuradunak bere egingo dituen baldintzak eta konpromisoak

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 7ko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean DLO) 22.2 a) artikuluan xedatzen du zuzenean eman ahal izango direla toki erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusitako diru-laguntzak, diru-laguntza horiek arautzen dituzten hitzarmenetan eta araudian jasotako baldintzetan. Halaber, 28. artikuluan ezartzen du hitzarmenak izango direla diru-laguntza horiek bideratzeko ohiko tresnak.

### REUNIDOS

De una parte, **D<sup>a</sup>. Maite Etxebarria Azpiolea**, en nombre y representación del **Ayuntamiento de Abanto Zierbena**, actuando en virtud de las facultades atribuidas por la normativa vigente,

De otra parte, un y/o una representante de la Entidad **AMPA Buenos Aires IGE**, CIF G-48234967, con domicilio en Abanto Zierbena (Bizkaia) Barrio Cotarro número 11, CP 48500.

### MANIFIESTAN

Que por el presente convenio se canalizará a favor de la persona beneficiaria las subvenciones que figuran en el vigente Presupuesto de esta Entidad dentro del crédito consignado en el capítulo 4 Transferencias corrientes con el siguiente literal «A favor de **AMPA Buenos Aires IGE**» siendo el importe de la dotación de 5.128,95euros, así como establecer las condiciones y compromisos que asume la persona beneficiaria.

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante LGS) dispone en su artículo 22.2. a) que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos de las entidades locales, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones, y en el artículo 28 establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.

Bestalde, diru-laguntzei buruzko udal-ordenantzak, 2006ko maiatzaren 11ko 89 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak, hauxe aurreikusten du 5.4 artikuluan: "Era berean, zuzenean eman ahal izango dira Abanto Zierbenako Udalaren sail bakoitzean urteko aurrekontuetan izenez aurreikusitako diru-laguntzak, laguntza horiek arautzen dituzten hitzarmenetan aurreikusitakoaren arabera.

Hortaz, aipatu xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzea adostu dute, eta klausula hauek arautuko dute hitzarmena:

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA. DIRU LAGUNTZAREN XEDEA

**AMPA Buenos Aires IGE** erakundeari diru-laguntza nominatiboa ematea babesten duen aurrekontu kreditua 4. kapitulari dagokio (transferentzia arruntak), IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK-HEZKUNTZA DIRU LAGUNTZEN programari; ondorioz, funtsak ezingo dira erabili kreditu horri egotz dakizkiokeen gastuen izaera eta helburua betetzen ez duten gastuetarako. Hori dela eta, bi aldeek adostu dute diru-laguntza onuradunak gauzatuko dituen eta jarraian azalduko diren jarduerak finantzatzeko erabiliko dela:

A. Diruz laguntzea elkartearen funtzionamenduak eragindako gastuak eta jarduera ludikoen eta hezkuntzaren arlokoen programaziotik eratorritakoak, honako helburu hauetakoren bat badute:

Por su parte, la ordenanza municipal de subvenciones, publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia núm. 89 de 11 de mayo de 2006, en su artículo 5.4 prevé que podrá concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos anuales de cada uno de los departamentos del Ayuntamiento de Abanto Zierbena, en los términos que se prevean en los convenios que regulen dichas ayudas.

Así pues, de conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se registrará por las siguientes:

## CLÁUSULAS

### PRIMERA. OBJETO DE LA SUBVENCIÓN

El crédito presupuestario que ampara la concesión de la subvención nominativa a la entidad **AMPA Buenos Aires IGE** es un crédito del capítulo 4 «Transferencias corrientes» del programa INSTITUCIONES SIN FINES DE LUCRO-EDUCACIÓN SUBVENCIONES por lo que no podrán aplicarse los fondos a gastos de distinta naturaleza y finalidad a la que es propia de los gastos imputables a dicho crédito. En consecuencia, ambas partes convienen que la subvención se destinará a financiar las siguientes actividades a desarrollar por la persona beneficiaria y a cubrir los siguientes fines:

A. Subvencionar los gastos ocasionados por el funcionamiento de la asociación, así como los derivados de la programación de las diferentes actividades lúdicas educativas que tengan alguna de las siguientes finalidades:

- Hezkuntza-komunitatearen estamentuen parte-hartzea erraztea (familiak, irakasleak eta ikasleak).
- Harremana sustatzea udalerriko ikastetxeen artean.
- Estimulatzea hezkuntza-berrikuntzak sartzeari.
- Ikasleen arteko eten digitala murriztea.
- Konpentsatzea eskolako biztanleriaren ezberdintasun sozioekonomikoak.
- Bateratzea familiako eta laneko bizimodua.
- Aberastea hezkuntza-zentroen hezkuntza-proiektuak.
- Favorecer la participación de los diferentes estamentos de la comunidad educativa (familias, profesorado y alumnado).
- Fomentar la relación entre diferentes centros educativos del municipio.
- Estimular la introducción de innovaciones educativas.
- Reducir la brecha digital entre el alumnado.
- Compensar las desigualdades socioeconómicas de la población escolar.
- Conciliar la vida familiar y laboral.
- Enriquecer los proyectos educativos de los centros educativos.

B. Ordaintzea 2 urteko geletarako (gutxienez 8 adingabe dituzte) laguntzaileak kontratatzeak eragindako gastuen % 50.

D. Osasunerako hezkuntzako tailerrak egiteak eragindako gastuak ordaintzea.

B. Sufragar el 50% de los gastos ocasionados por la contratación de las auxiliares de las aulas de 2 años, que tienen un mínimo de 8 menores;

C. Sufragar los gastos ocasionados por la impartición de los talleres de Educación para la Salud.

## **BIGARRENA. ZENBATEKOA ETA AURREKONTU KREDITUA**

Diru-laguntzaren zenbatekoa 5.128,95 eurokoa da. Zenbatekoak ez du gainditzen baimendutako aurrekontu kreditua. Kreditu hori 021 32600 48104 kodearekin izendatuta dago, eta horri emandako laguntza egokituko zaio.

## **HIRUGARRENA. ONURADUNAK**

AMPA Buenos Aires IGE izeneko erakundea hitzarmen honetan gauzatzen den diru-laguntzaren onuraduna da. Erakunde horrek bete egiten ditu DLOren 13. artikulua diru-laguntzen onuradun

## **SEGUNDA. CUANTÍA Y CRÉDITO PRESUPUESTARIO**

La cuantía de la subvención asciende a 5.129,95 euros, importe que no supera el crédito presupuestario autorizado. A dicho crédito, designado con el código 021 32600 48104, se imputará la cuantía otorgada.

## **TERCERA. PERSONAS BENEFICIARIAS**

La entidad AMPA Buenos Aires IGE es la beneficiaria de la subvención que se materializa en el presente convenio. Esta entidad cumple con los requisitos que el artículo 13 de la LGS establece para tener la condición de beneficiaria de

izateko ezartzen dituen baldintzak. Xede horretarako sinatu du hitzarmen honekin batera I. eranskinean jasotako erantzukizun-aitorpena.

#### **LAUGARRENA: APLIKA DAITEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA.**

Hona hemen diru-laguntza ematea arautzen duen araubide juridikoa:

- a Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- b Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- c Diru-laguntzei buruzko udal-ordenantza, 2006ko maiatzaren 11ko 089 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa.
- d Hitzarmena bera.
- e Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik egon ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

#### **BOSGARRENA. XEDE BERBERERAKO BESTE DIRU LAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU SARRERA EDO BALIABIDE BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA.**

Diru-laguntzak jasotzea bateragarria izango da beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, helburu bererako jaso badira, jatorria edozein izanda: administrazioak, erakunde publiko edo pribatuak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoenak, diru-laguntza edo laguntza horiek arautzen dituen araudiak ezar dezakeen horretan eragin gabe. Nolanahi ere, diru-laguntzen zenbateko osoak ezin izango du gainditu, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera zein baliabide batzuekin batera, diruz

subvenciones. A tal efecto firma con el presente convenio la declaración responsable recogida en el anexo I.

#### **CUARTA. RÉGIMEN JURÍDICO APLICABLE**

El régimen jurídico que regula la concesión de la subvención es:

- a. La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones
- b. Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones
- c. La ordenanza municipal de subvenciones, publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia núm. 089 de 11 de mayo de 2006
- d. El propio convenio
- e. Las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

#### **QUINTO. COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES, AYUDAS, INGRESOS O RECURSOS PARA LA MISMA FINALIDAD**

Las subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la unión europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas. No obstante, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o

lagundutako jardueraren kostua.

#### **SEIGARRENA. DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEAK ETA MODUAK. BERMEEN ARAUBIDEA**

Ordainketa alde zuretik egingo da, justifikazioa egin baino lehen; izan ere, Abanto Zierbenako Udalaren diru-laguntzak jarduera gauzatzeko nahitaezko finantzaketa osatzen du, ez dagoelako nahikoa den finantzatzeko beste baliabiderik.

Onuradunari ez zaio bermea eman dezala exijituko, uste baita ez dagoela arriskurik hitzarmen honi jarraikiz bere egindako betebeharra ez betetzeko.

#### **ZAZPIGARRENA. GAUZATZEKO EPEA**

Diruz lagundutako jarduera abiarazteko epea [2021]ko urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

Onuradunak, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen, emakidaren ebazpena aldatzeko eskatu ahal izango du, aldaketa horiek honako hauek dakartzatenean: ezarritako epeak handitzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea. Bada, aldaketa horiek Abanto Zierbenako Udalak baimendu beharko ditu. Baimena emango da aldaketa eragin duen arrazoia ezusteko egoerak direnean edo jarduketara behar bezala gauzatzeko beharrezkoak direnean, betiere horrek diru-laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez badu eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez baditu.

recursos, supere el coste de la actividad subvencionada

#### **SEXTO. PLAZOS Y MODOS DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN. RÉGIMEN DE GARANTÍAS**

El pago se realizará por anticipado, con carácter previo a la justificación, ya que la subvención del Ayuntamiento de Abanto Zierbena constituye financiación imprescindible para el desarrollo de la actividad por inexistencia de otros medios de financiación suficientes.

No será exigible la prestación de garantía por parte de la persona beneficiaria por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.

#### **SEPTIMO. PLAZO DE EJECUCIÓN**

El plazo de inicio de la actividad subvencionada es del 1 de enero y finalizará el 31 de diciembre de [2021].

La persona beneficiaria podrá antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, solicitar modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que deberán ser autorizadas por el Ayuntamiento de Abanto Zierbena. La autorización se producirá cuando la modificación traiga su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.

## **ZORTZIGARRENA. JASOTAKO DIRU LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA.**

Diru-laguntza emateko xede den jarduera amaitu ondoren, dokumentuen bidez justifikatu beharko da, jarduera horri behar bezalako erabilera eman zaiola egiaztatze aldera. Dagokion justifikazioa 2022ko otsailaren 14ra bitartean aurkeztu ahal izango da, hau da, diruz lagundutako jarduera amaitzeko epea amaitu eta 45 egunera.

Justifikatzeko kontuaren modalitatearen bidez egingo da justifikazioa, eta horrek honako hauek jasoko ditu:

- Gauzatutako jardueraren memoria xehatua.
- Jardueraren ondorioz [2021] sortutako diru-sarrera eta gastuen balantzea.
- Jardueraren ondorioz sortutako gastuen jatorrizko agiriak, emandako zenbatekoaren kopuru osora arte. Justifikazio horiek jatorrizko fakturak izango dira edo merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten egiaztatutako balioak beste dokumentu batzuk.
- Diru-laguntza jaso duen jardueraren edo ikuskizunaren eraginez argitaraturiko edo editaturiko liburuxka, kartel, liburu, bideo, CD-Rom eta antzekoen ale bana ematea.
- Jarduera beste edozein erakunde publikoren edo pribaturen laguntzarekin kofinantziatu bada, justifikazioaren zatitza, funts horien jatorria eta diru-laguntza jaso duten jardueretarako aplikazioa egiaztatu beharko da.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, behar bezala justifikatutakoak izanik, beharrezkoak direnean eta

## **OCTAVO. PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN PERCIBIDA**

Una vez finalizada la actividad para la que se concede la subvención, deberá procederse a la justificación documental que acredite el correcto empleo dado a la misma. La presentación de la correspondiente justificación será hasta el día 14 de febrero de 2022, es decir, 45 días después de la finalización del plazo de finalización de la actividad subvencionada.

La justificación se realizará mediante la modalidad de cuenta justificativa que contendrá:

- Memoria detallada de la actividad desarrollada.
- Balance de ingresos y gastos originados por la asociación de [2021].
- Los justificantes originales de los gastos devengados como consecuencia de la actividad hasta el montante total de la cuantía concedida. Tales justificantes consistirán en facturas u otros documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil
- Aportación de un ejemplar de cada uno de los folletos, carteles, libros, vídeos, CD-Rom, etc., que se hayan editado o publicado con ocasión de la actividad o evento subvencionado.
- Cuando la actividad haya sido cofinanciada con otras ayudas o recursos por parte de cualquier otra entidad pública o privada, deberá acreditarse, como parte de la justificación, la procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, son necesarios y responden de manera indubitativa a la

zalantzarik gabe proiektuaren edo jardueraren izaerari eta behar bezalako exekuzioari erantzuten diotenean.

Aurkezturiko justifikazio agiri guztien data diru-laguntza jaso den ekitaldi ekonomikokoa izango da.

### **BEDERATZIGARRENA. DIRU LAGUNTZA ETA ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK ONARTZEA.**

Hitzarmen hau sinatzeak diru-laguntzaren onuradunak emandako diru-laguntza onartzea eta honako konpromiso hauek hartzea dakar:

- Behar bezala betetzea hitzarmen honetan ezarritako arauak, baita diru-laguntza hori ematea xede duen ebazpenean ezar litezkeen baldintza bereziak ere.
- Emandako diru-laguntzari berau eskatzea eragin zuen erabilera zehatza ematea. Helburua betetzea, proiektua gauzatzea eta diru-laguntza ematea arazoitzen duen ekintza gauzatzea.
- Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko behar beste baimen eskuratzea.
- Jarduera eta ikuskizun publikoak antolatzeari dagokionez indarrean dagoen araudia betetzea.
- Diruz lagundutako jardueraren harira egiten diren sustatzeko elementuetan, karteletan, testuetan edo dokumentuetan Abanto Zierbenako Udalaren babesa aipatzea. Sustatzeko elementuak EAEko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira.
- Xede berbera duen edozein laguntza ekonomiko lortu dela jakinaraztea, horren jatorria publikoa zein

naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

Toda la documentación justificativa presentada habrá de estar fechada en el ejercicio económico para el que se conceda la subvención.

### **NOVENO. ACEPTACIÓN DE LA SUBVENCIÓN Y OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD BENEFICIARIA.**

Con la firma del presente convenio la entidad beneficiaria acepta la subvención concedida y se compromete a:

- Cumplir debidamente con las normas establecidas en el presente convenio, así como las condiciones particulares que pudieran establecerse en la resolución por la que se conceda la subvención.
- Dar a la subvención concedida el concreto destino para el que fue solicitada. Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad que fundamenta la concesión de la subvención.
- Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada.
- Cumplir con la normativa vigente en lo referente a la organización de actividades y espectáculos públicos.
- Incorporar en los elementos de promoción y en los carteles, textos o documentos que se elaboren con ocasión de la actividad subvencionada la mención del patrocinio del Ayuntamiento de Abanto Zierbena. Los elementos de promoción deberán editarse en las dos lenguas oficiales de la C.A.V
- Comunicar la obtención de cualquier ayuda económica para el mismo fin, sea su procedencia

pribatua izan. Edozein kasutan, jasotako zenbatekoa berariaz adieraziko da.

- Abanto Zierbenako Udalari laguntzea, hala eskatzen bada, aldi baterako azterlanak, galdeketak edo estatistikak egiten.
- Udalak egin ditzakeen egiaztapen guztien mende jartzea.
- Emandako zenbatekoari ondoren ematen zaion erabilera justifikatzea.
- Udal-ordenantzaren bidez edo aplikatzekoa den gainerako araudiaren bidez ezarritako beste edozein.

#### **HAMARGARRENA. DIRU LAGUNTZA ITZULTZEA NORBERAREN BORONDATEZ**

Erakunde onuradunak jasotako diru-laguntza osoa edo horren zati bat itzuli ahal izango du, diru-laguntzei buruzko araudi orokorraren 90. artikuluekin bat etorritz. Horretarako, Udalari ordainketa-gutuna eskatuko dio, dirua itzultzeko.

#### **HAMAIKAGARRENA. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

Urratzeen eta zehapenen araubidea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeko IV. tituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa izango da, baita horien garapenerako arauetan eta lege aplikagarri guztietan ezarritakoa ere.

#### **HAMABIGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA ETA IRAUNGITZEKO ARRAZIOIAK**

Hitzarmen hau indarrean sartuko da berau sinatzen denean, eta 2021ko abenduaren 31n amaituko da.

bien pública o bien privada con indicación expresa en todo caso de la cuantía recibida.

- Colaborar con el Ayuntamiento de Abanto Zierbena, en caso de ser requerida, para la eventual elaboración de estudios, encuestas, o estadísticas.
- Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúe el Ayuntamiento.
- Proceder a la justificación posterior del empleo dado a la cantidad otorgada.
- Cualquier otra establecida por la ordenanza municipal o por el resto de normativa aplicable

#### **DECIMA. DEVOLUCIÓN DE SUBVENCIÓN POR PROPIA INICIATIVA**

La entidad beneficiaría podrá efectuar la devolución total o parcial de la subvención recibida de conformidad con el artículo 90 del reglamento general de subvenciones. Para ello solicitará carta de pago al ayuntamiento para realizar la devolución

#### **UNDECIMA. INFRACCIONES Y SANCIONES**

El régimen de infracciones y sanciones, será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco, así como en sus respectivas normas de desarrollo y demás legislación que resulte aplicable.

#### **DUODECIMA. VIGENCIA DEL CONVENIO Y CAUSAS DE EXTINCIÓN**

El presente convenio entra en vigor el día de su firma y finaliza el 31 de diciembre de 2021.

Iraungitzeko arrazoiak izan daitezke (hitzarmen hau suntsituz) honako kausa hauek:

- Elkarreak ez erabiltzea hitzarmen honen xede diren ekarpenak (jaso direnak) eman zaion xederako.
- Erakundearen jarduerak behin betiko etetea, baita ekitaldi naturalean sei hilabetetik gorako epea aldi baterako etetea ere.
- Hitzarmen honen xede diren diru-ekarpenen kargura egindako gastuak dokumentuen bidez ez justifikatzea, indarrean dagoen legeriaren arabera tartean dauden erantzukizunak eskatu ahal izatean eragin gabe.
- Bederatzigarren klausulan jasotako zabaltzeko neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.
- Eta, oro har, dokumentu honen arabera erakundeak bere gain hartutako konpromisoetakoren bat ez betetzea, betiere oso larritzat jotzen badira.

Abanto Zierbenako Udalari egotz ezin dakioken arrazoiren batengatik hitzarmen hau suntsitzeko espedientea abiaraziz gero, zerbitzu ekonomikoek diru-laguntzak itzultzeko exijituko dute, eta, hala badagokio, berandutzeagatiko interesak (legez dagozkionak) ordaintzeko ere bai.

#### **HAMAHIRUGARRENA. ARAUTZEKOAK DIREN AURREIKUSI GABEKO ALDERDIAK ETA AUZIPEKO KONTUAK**

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatzekoak izango dira: diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko

Podrán dar lugar al vencimiento, mediante resolución del presente convenio, las siguientes causas:

- No destinar por parte de la Asociación las aportaciones recibidas objeto de este convenio para la finalidad que se concede.
- La suspensión definitiva de las actividades de la entidad, así como su suspensión temporal por plazo superior a seis meses en el ejercicio natural.
- El incumplimiento de justificar mediante la correspondiente documentación los gastos realizados con cargo a las aportaciones económicas objeto de este convenio, sin perjuicio, de exigir las responsabilidades en las que se incurra según la legislación vigente.
- Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión contenidas en la cláusula novena.
- Y en general cualquier otro incumplimiento por la entidad de las obligaciones asumidas en virtud del presente documento y que se consideren muy graves.

Caso de incoarse expediente para la resolución del presente convenio por causa no imputable al Ayuntamiento de Abanto Zierbena, se exigirá por los servicios económicos el reintegro de las cantidades percibidas, y en su caso, los intereses de demora al legal correspondiente.

#### **DECIMO TERCERA. ASPECTOS REGULABLES NO PREVISTOS Y CUESTIONES LITIGIOSAS**

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación a la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; al Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se

38/2003 Lege Orokorra onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; diru-laguntzei buruzko udal-ordenantza, 2006ko maiatzaren 11ko 89 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa eta aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein xedapen.

Hitzarmen honetatik erator daitezkeen auzipeko gaiak, euren izaera juridiko eta administratiboa kontuan hartuta, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren baitan egongo dira.

Adostasuna agertzeko froga gisa, hitzarmen hau formalizatu eta sinatzen da ale bikoitzean, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

**Lankidetzaren hitzarmena irakurri ondoren alderdiek adierazitako guztia onartu eta berretsi dute, eta hori frogatzeko bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.**

**Maite Etxebarria Azpiolea andrea, Abanto Zierbena Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa.**

aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, a la Ordenanza Municipal de Subvenciones, publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia núm. 89 de 11 de mayo de 2006, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

En prueba de conformidad, se formaliza y firma el presente convenio en duplicado ejemplar, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

**Tras la lectura del presente Convenio de Colaboración los otorgantes se ratifican y afirman en su contenido y en prueba de conformidad, lo firman por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.**

**Representante de la AMPA Buenos Aires IGE.**

AMPA Buenos Aires IGE  
G-48234967  
Barrio Cotarro 11  
48500 Gallarta  
ES60 3035 0259 5525 9001 2704

Elkartearen funtzionamenduak eragindako gastuak eta jarduera ludikoen eta hezkuntzaren arlokoen programaziotik eratorrientzako diru-laguntza	3.150,95€	Subvención para los gastos ocasionados por el funcionamiento de la asociación, así como los derivados de la programación de las diferentes actividades lúdicas educativas
2 urteko geletarako laguntzaileak kontratatzeak eragindako gastuen %50 ordaintzeko diru-laguntza	0€	Subvención para sufragar el 50% de los gastos ocasionados por la contratación de las auxiliaren de las aulas de 2 años
Lehen Hezkuntzan Osasun hezkuntza proiekturaren eratorritako jardueran egiteko diru-laguntza	1.978€	Subvención para las actividades derivada del proyecto de Educación para la Salud en educación primaria.
	<b>5.128,95€</b>	